

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gauegiz-Arteagako Udala****Toki Gobernuko Batzordeari eskuordetzea (169/2019 Dekretua)**

Guztiak jakin dezaten, 2019ko abenduaren 10ean, Alkatetzak, besteak beste honako erabaki hau hartu zuela jakinarazten da:

«Ikusita: Alkatetzaren uztailaren 10eko 98/2019 Dekretua, zeinaren bitartez Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatu diren eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak egiteko maiztasuna ezarri den.

Ikusita: Alkatetzaren uztailaren 10eko 99/2019 Dekretua, zeinaren bitartez Tokiko Gobernu Batzarrari beren-beregi eskudantzia zehatz batzuk eskuordetu zaizkion.

Oinarria: Tokiko Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren 1986ko azaroaren 28ko Erregelamenduaren 43., 44. eta 53. artikuluetan xedatutakoa.

Bada, Alkatetza honek honako hau

**EBATZI DU:**

*Lehenengoa:* Ondoriorik gabe uztea, eta, beraz, baliogabetzea Alkatetzaren uztailaren 10eko 99/2019 Dekretuaren bitartez Tokiko Gobernu Batzarrari egindako eskuordetzea.

*Bigarrena:* Tokiko Gobernu Batzarrari honako eskudantzia hauek beren-beregi eskuordetzea:

1. Udaleko obra eta zerbitzuak zuzentzea, ikuskatzea eta sustatzea
2. Enplegu publikoaren eskaintza onestea, Udalbatzak onetsitako aurrekontuaren eta plantillaren arabera; langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako probetako oinarriak onestea.
3. Udalbatzari berariaz egotzi gabeko plangintza orokorraren garapenerako plangintza-tresnak onestea, eta horiekin bat hirigintza-kudeaketako tresnak eta urbanizazio-proiektuak ere bai.
4. Agintaritza desobeditzeagatik edo udal-ordenantzak hausteagatik zehapenak ezartzea, ahalmen hori beste organo batzuei esleitzen zaienean izan ezik.
5. Obra-, hornikuntza- eta zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa bada (BEZ kanpo) eta aurrekontuko baliabide arrunten % 10etik gorakoa ez bada eta, nolana ere, sei milioi eurotik gorakoa ez bada, urte anitzekoak barne, iraupena lau urtetik gorakoa ez bada; betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ezin izango da izan, ez aipatutako zenbatekoa baino handiagoa, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntei dagokiena, ez aipatutako zenbatekoa baino handiagoa.
6. Obra eta zerbitzuen proiektuak onestea, horiek kontratatzeke edo emateko eskumena daukanean eta aurrekontuan jasota daudenean.
7. Ondasunen gaineko kontzesioak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, balioa ez denean aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa eta hiru milioi euro baino handiagoa; ondarea besterentzea ere beren eskumena izango da, balioa ez denean ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa
8. Lizentziak ematea, salbu eta sektoreko legeek Udalbatzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari beren-beregi esleitzen badiote.
9. Tokiko Gobernu Batzarrak emandako egintzen aurkako berraztertzeke errekurtsioak ebaztea.



*Hirugarrena:* Eskumenak eskuordetzea edozein unetan baliogabetu ahal izango da dagokion Alkatetzaren dekretuaren bitartez, eta, horrez gain, eremu zehatz baten eza-gutza bereganatu dezake nahiz eta eskuordetzez ebazpena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion, baldin eta inguruabar tekniko, ekonomiko, sozial, juridiko eta lurraldekoek egoki egiten badute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutako baldintza eta moduan.

*Laugarrena:* Honako hau Tokiko Gobernu Batzarrari jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, kontuan izanda Tokiko Gobernu Batzarra eratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko dela indarrean.

*Bosgarrena:* Udalbatzari honen berri ematea egiten duen hurrengo osoko bilkuran.»  
Gautegiz Arteagan, 2020ko urtarrilaren 21ean.—Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz